

B.7. BERRIATUA

B.7.1. Atxurrako kobazuloa

II. kanpaina
Zuzendaritza: Diego Garate
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.7.1. Cueva de Atxurra

II Campaña
Dirección: Diego Garate
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The 2nd season of archaeological interventions in Atxurra Cave proved particularly fruitful. The stratigraphic sequence of the site has been defined right down to the bedrock, and the area of intervention has been extended slightly. Furthermore, a large number of Palaeolithic engravings and wall paintings have been discovered inside the cave, distributed over at least twelve different panels.

2014. urtean zehar bideratutako lehenengo ekinaldi hartan J.M. Barandiaranek aspaldian egindako indusketatik kontserbatutako profiletako bat berreskuratzen genuen. Sekuentzia arkeologiko aberatsa dokumentatu ahal izan genuen, eta Behe Madeleine-tik Holozenora artekoa hartzen duten bost maila bereizi ahal izan genituen.

2015. urteko bigarren ekinaldi honetan egindako lanek aukera eman digute Atxurrako kobazuloan antzemandako okupazioen izaera zehazteko eta bertako aztarnategiko sekuentzia estratigrafiko osoa dokumentatzeko. 2014. urtean irekitako metrotik abiatuta 1,5 m²-ko azaleran jardun genuen. Azalera horretan eta gutxi gorabehera 75 cm-ko lodieran guztira 6 geruza induskatu genituen, eta horiek 2014ko esku hartzean bereizitakoei gehituz gero, 20 geruza dauzkagu 1,75 m baino lodiagoa den jalkinean. Sedi-mentuzko jalkin horretan zortzi multzo estratigrafiko (I. mailatik VIII. mailara arte) identifikatu ditugu, eta horien barruan beste azpi-maila batzuk bereizi ahal izan ditugu (hizkiak erabili ditugu azpi-mailak identifikatzeko garaian). Zehazki, 2015ean, hasiera batean Behe Madeleine aldian kokatutako V. mailaren amaiera induskatu dugu; baita VI. maila ere, nahiz eta kronologia zein kultura jakin batean kokatzeko moduko daturik ez dugun; eta azkenik J.M. Barandiaranek bere XIV.-XVI. mailetan hautemandako Gravette aldiko okupazioekin bat letorkeen VII. maila induskatu dugu. VIII. maila soilik paleontologikoa da, J.M. Barandiaranek deskribatutako oinarriko mailarekin bat dator. Azken maila hori puntu honetan itxura batean arroka estaltzen ari den ondoko ondoko espeleotema sorta lodi baten gainean pausatzen da.

Atxurrako kobazuloko sarreraz gain, zundaketa bat egin genuen kobazuloaren barrunbearekin bat egiten duen ondoko harpe batean. Horretarako, aztarnategira egindako aurreneko bisitaldietan antzemandako isilpeko indusketa baten mugei jarraitu gintzaizkien. Zundaketa horren emaitzak negatiboak izan ziren guztiz.

Une honetan Gravette alditik Madeleine aldira arte luzatzen den okupazioaren sekuentzia eskaintzen digu Atxurrako kobazuloko aztarnategiak, bakarra da horrelako ezaugarriak dituen Lea ibai arroan. Beraz, lehen mailako interesa duen aztarnategia da Goi Paleolitoko biztanleen dinamikak ezagutzeko.

Era berean, landa lanetan zehar, kobazuloaren barruko hormak miatu genituen. Horrenbestez, irailaren

En la primera campaña, desarrollada durante 2014, se recuperó uno de los perfiles conservados de la excavación histórica de J. M. Barandiarán. Se pudo documentar una rica secuencia arqueológica, formada por cinco niveles que abarcaban desde el Magdaleniense Inferior al Holoceno

Los trabajos realizados en la segunda campaña, desarrollada en 2015, nos han permitido precisar la naturaleza de las ocupaciones detectadas así y documentar la totalidad de la secuencia estratigráfica del yacimiento de Atxurra. La intervención se ha realizado en una superficie de 1,5 m², a partir del metro abierto en 2014. En esta superficie se han excavado un total de 6 tallas en unos 75 cm de espesor, lo que sumado a la intervención de 2014 supone un total de 20 tallas y algo más de 1,75 cm de espesor. En este paquete sedimentario se han reconocido ocho conjuntos estratigráficos (niveles I a VIII) dentro de los cuales, en ocasiones se han podido identificar subniveles, para cuya diferenciación se han utilizado letras. Concretamente, en 2015, se ha excavado el final del nivel V, atribuido inicialmente al Magdaleniense Inferior; el nivel VI, para el cual carecemos de datos que permitan una atribución cronocultural; y el nivel VII que se correspondería con las ocupaciones gravetienses detectadas por J. M. Barandiarán en sus estratos XIV-XVI. El nivel VIII es exclusivamente paleontológico y se corresponde con el nivel de base descrito por J. M. Barandiarán. Este último nivel se dispone sobre una espesa sucesión de espeleotemas que parece recurrir, en este punto, el suelo de roca.

Además de la entrada de Atxurra también se evaluó mediante sondeo un covacho adyacente que conecta con el desarrollo interno de la cavidad, siguiendo para ello los límites de una excavación furtiva observada en las primeras visitas realizadas al yacimiento. Los resultados de este sondeo han sido completamente negativos.

El yacimiento de la cueva de Atxurra nos ofrece en la actualidad, una secuencia de ocupación que abarca desde el Gravetiense al Magdaleniense, característica única en toda la cuenca del río Lea. Por lo tanto, se presenta como un yacimiento de interés primordial para el conocimiento de las dinámicas de poblamiento durante el Paleolítico Superior.

Asimismo, durante las labores de campo se procedió a la prospección parietal del interior de la cavidad. De esta manera, el 25 de septiembre Diego Ga-


25ean, Diego Garatek eta Iñaki Intxaurbek (ADES taldeko espeleologoa) grabatu eta horma-irudi sorta bat aurkitu zuten kobazuloaren barrunbeto galerietan. Jarraian eta behin-behinean aztertu zituzten irudi horiek. Orain arte dakigunez, artean azterketa zorrotz bat egiteke dagoela, Atxurrako kobazuloko multzo dekoratua 14 sektoretan banatzen dela esan behar dugu, eta gutxienez 70 direla animalien irudiak. Irudi guztiek barne koherentzia agerikoa dute –formaren eta teknikaren ikuspegitik–, inolako zalantzarik gabe dira Goi Paleolitoaren azken unekoak, zehazki Erdi Goi Madeleineko kultur aldikoak, orain dela gutxi gorabehera 14.500-12.500 urtekoak; okupazio hori kobazuloaren sarrerako eremuan bideratu genuen indusketako II. mailan irudikatzen da. Bereziki deigarria da panel batzuk goiko erlaitzetan egotea, leku erdi ezkutuetan, iristen zailak eta arriskuak diren gunetean, haietaraino iristeko eskalatu behar den tokietan.

Aurkitutako irudien kopuruak eta kalitateak –Ekain eta Altxerri bezalako haitzuloetako multzo handien mailakoak– eta haiei atxikiriko zoru ukitu gabeek –material arkeologikoa daukatela, harrizko tresnak eta ikatzak barne–, aztarnategi guztiz berezi bihurtzen dute Atxurra Madeleine aldiko arte eta ikur adierazpenak aztertzeko. Bestalde, interpretazioa doitzeko modua eskainiko duten elementu ugari gain, labar artearen eta habitataren arteko lotura, Paleolito amaierako Lea-Artibai eskualdearen egitura eta Kantauriko, Pirinioetako eta Akitaniako eskualdeen arteko kultur harremanak nolakoak ziren argitzeko bidea eskainiko digute.

rate e Iñaki Intxaurbe –espeleólogo del grupo A.D.E.S.- localizan una serie de grabados y pinturas en las galerías profundas de la cueva, que son posteriormente evaluados de manera muy preliminar. En lo reconocido hasta el momento, y a falta de un examen mínimamente exhaustivo, el conjunto decorado de la cueva de Atxurra cuenta con 14 sectores decorados y un número mínimo de 70 figuras animales. Todas ellas muestran una notable coherencia interna -formal y técnica- que se puede atribuir, sin reservas, a momentos finales del Paleolítico Superior y en concreto al periodo cultural Magdaleniense medio/superior, datado hace circa 14.500-12.500 años, ocupación representada en el nivel II de nuestra excavación en la entrada de la cavidad. Resulta especialmente llamativa la disposición de los paneles sobre repisas superiores, en lugares más o menos ocultos con un acceso complicado y peligroso mediante escalada.

La cantidad y calidad de los motivos descubiertos -a la altura de los grandes conjuntos como Ekain o Altxerri-, así como la existencia de suelos intactos asociados, con material arqueológico (incluyendo piezas líticas y carbones), hacen de Atxurra un lugar excepcional para el estudio de los comportamientos artísticos y simbólicos durante el Magdaleniense. Ofrece además numerosos elementos que permitirán afinar la interpretación cuestiones fundamentales como la vinculación entre arte rupestre y hábitat, la articulación de la comarca del Lea-Artibai al final del Paleolítico, o la existencia de contactos culturales entre distintas regiones como el Cantábrico, los Pirineos y Aquitania.

D. Garate; J. Ríos; I. Intxaurbe; O. Rivero; A. San Emeterio; M. Larrea; I. Libano; S. Vega; E. Regalado; A. Ugarte



Grabatutako zaldiak eta beltzez pintatutakoak 4 metroko garaieran dagoen alboko erlaitz baten gainean.

Caballos grabados y pintados en negro sobre una repisa lateral a 4 metros de altura.